

III - OTRAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Laneko, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Arabako Lurralde Ordezkaritza

“SEA Empresarios Alaveses” elkartearen estatutuak aldatzea

Ebazpena, 2016ko urriaren 27koa, Arabako Lurralde ordezkariera, SEA Empresarios Alaveses elkartearen estatutuak aldatzeko dokumentazioa eta estatutuok gordailutzea agindu eta horren berri emateko dena.

Sindikatu eta Enpresa Erakundeen Estatutuak Gordailutzeko Bulego Publiko honetan espediente hasi da SEA Empresarios Alaveses elkartearen estatutuak aldatzeko dokumentazioa gordailutzea dela-eta, zeina lehendakariak aurkeztu baitu. Espediente hori ikusirik, ebazpena eman da, honako aurrekari hauek oinarri hartuta:

Aurrekariak

Lehenengoa.– 2016ko urriaren 4an, aipatu elkartearen estatutu-aldaketari buruzko dokumentazioa eta estatutuak gordailutzea eskatzeko dokumentazioa aurkeztu da.

Bigarrena.– Aurkeztutako dokumentazioa bat dator sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan ezarritakoarekin, eta dokumentazio horretan honako dokumentu hauek daude jasota: gordailutze-eskabidea egiteko instantzia, 2016ko ekainaren 10eko batzarraren akta –non aldaketaren erabakia jasota baitago– eta aldatutako estatutuak.

Hirugarrena.– Arabakoa da elkartearen jarduketaren eremua, eta haren eremu funtzionala estatutuaren 2. artikuluan jasota dago.

Egitate horiei zuzenbideko honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Zuzenbideko oinarriak

Lehenengoa.– Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuko 19.1 i) artikulutik datorkio organo honi Sindikatuen eta enpresa-elkarteen estatutuen gordailutzea formalizatzeko eskumena.

Bigarrena.– Administrazio-prozedura honetan aplikagarri den funtsezko araudia apirilaren 1eko 19/1977 Legean eta Sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuan jasota dago.

Hirugarrena.– Gordailutzeko dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi da zuzenbidearen arabera dela, eta, beraz, bidezkoa da aipatu elkartearen estatutuak aldatzeko aktari buruzko dokumentazioa eta aldatutako estatutuak onartzea gordailua egiteko, eta argitara ematea ekintza hori.

Aipaturiko oinarriak eta oro har aplikatzekoak diren xedapenak aztertu ondoren, honako hau

Ebazten dut

Lehenengoa.– SEA Empresarios Alaveses elkartearen estatutuak aldatzeko akta eta aldatutako estatutuak gordailutzea agintzea.

Bigarrena.– Gordailutze hori ALHAOn argitaratzeko agintzea, sindikatuen eta enpresa-erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Hirugarrena.– Interesdunek aztertu ahalko dute gordailututako dokumentua, eta horren kopia eskatu, baita inpugnatu ere Vitoria- Gasteizko Lan epaitegien aurrean, urriaren 10eko 36/2011 Legearen 2. L artikuluan ezarritakoaren arabera (2011ko urriaren 11ko BOE).

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 27a

Arabako Lurralde ordezkaria

ÁLVARO IRADIER ROSA